

**2024ko Bilboko “Film Sozialak”  
Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 16. Jaialdia  
‘INVISIBLE EXPRESS’**

**Zinema eraldaketa soziala lortzeko tresna**

Kultura, Communication y Desarrollo (KCD ONGD) erakundearen misioaren esparruan eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lerrokatuta, Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak zinea hartu du aldaketarako tresna indartsu gisa. Zinemak hezi eta informatu ez ezik, emozioak eta gogoetak ere sortzen ditu modu entretenigarri eta eskuragarrian, balio positiboak, eraldatzaileak eta solidarioak transmititzeko bitarteko ezin hobea bihurtuz.

“INVISIBLE EXPRESS” lehiaketa UPV/EHUko Lankidetzeta Bulegoarekin lankidetzan egin da, eta unibertsitateko komunitateari aktiboki parte hartzeko gonbita egiten dio. Aukera paregabea da UPV/EHUko ikasleek arte zinematografikoa erabil dezaten gizateriaren onura komunera bideratutako beren ikuspegiak eta proposamenak munduari erakusteko.

Zuen film labur sozialen bidez, funtsezko gaiei buruzko tokiko eta mundu mailako elkarrizketan parte har dezakezue, hala nola ekitateari, justizia sozialari, kulturartekotasunari, giza eskubideei eta ingurumen-, gizarte- eta politika-iraunkortasunari buruz. Zuen ahotsak eta sormena mugimendu global honen parte izatea nahi dugu, unibertsitatetik gure gizartearen etorkizuna nola eragin eta molda daitekeen erakutsiz.

“INVISIBLE EXPRESS” erakusketan parte hartzera animatzen zaituztegu, eta zuen talentua eta ikuspegia erabiltzera, istorioak kontatzeaz gain, aldaketa eragingo duten eta elkartasuna eta elkar ulertzea sustatuko duten lanak sortzeko.

**‘INVISIBLE EXPRESS’ lehiaketaren oinarriak**

**Deialdigileak: Kultura, Communication y Desarrollo KCD-GKE  
eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa**

- 1) 2024ko irailaren 25etik urriaren 2ra arte** egingo da “INVISIBLE EXPRESS” film laburren 12. lehiaketa, eta **UPV/EHU**n **ikasten diharduten pertsona guztiek parte hartu ahalko dute.**

- 2) Banaka edo taldeka parte hartu ahalko da.
- 3) **Lehiaketan parte hartzeko, aldez aurretik izena eman behar da, [formulario honen bidez \(https://www.kcd-ongd.org/invisible-express-2024\)](https://www.kcd-ongd.org/invisible-express-2024) webgunean dagoena), eta datu hauek eman:**
  - a. Aurkeztu den pertsonaren edo taldekideen izen-abizenak eta NANA.
  - b. Taldearen arduradunaren telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
  - c. Ikasketak egiten ari diren UPV/EHUko ikastegia eta ikasturtea.
- 4) **Izena emateko epea 2024ko irailaren 9tik 24ra arte** izango da.
- 5) **Irailaren 25ean emango da film laburrak egiteko gaiaren berri, campus bakoitzeko zentro batean emango den informazio hitzaldi batean. Izena emanda dauden ikasleei aldez aurretik jakinaraziko zaie noiz, non eta zer ordutan izango den. Partaideei honako hauek bilduko dituen gutun azal lakratu bat emango zaie: talde bakoitzaren txartelak, film laburretan jorratu beharreko gai eta lanak amaitzean aurkeztu beharreko orri bat.**
- 6) **Film laburrak 2024ko irailaren 25etik urriaren 2ra egingo da** eta erakundeak emandako gaia jorratuko da. **Egindako film laburrak urriaren 2ko (asteazkena) ordu bata baino lehenago bidali** beharko dituzte. Ordu horretatik aurrera ez da inolako lanik onartuko.
- 7) Film laburrek ez diote kalterik egingo irudikatutako pertsonen edo kolektiboen irudiari eta duintasunari.
- 8) **[Film laburrak, formulario honen bidez bidaliko dira, \(https://www.kcd-ongd.org/invisible-express-2024\)](https://www.kcd-ongd.org/invisible-express-2024)** webgunean dagoena), eta Wetransfer zuzenean deskargatzeko esteka erantsiko da.
- 9) Aurkeztutako film labur bakoitzak gehienez ere **3 minutu** iraungo du, kredituak barne.

- 10) Lanak **orijinalak eta argitaragabeak** izango dira. Erakundeak ez du bere gain hartuko egile eskubideei dagokienez gerta daitezkeen arau hausteen erantzukizunik.
- 11) Film laburrak **euskaraz zein gaztelaniaz** aurkeztu ahalko dira.
- 12) Lan sarituek laburreko elkarrizketen **transkripzio idatzia** (horien minutuak barne) bidaliko dute berria jasotzetik **egun bateko epean**. Transkripzioa elkarrizketak gauzatzen diren hizkuntza berean bidaliko dituzte.
- 13) Talde bakoitzak **obra bakarra** aurkeztu ahalko du.
- 14) Erakundeak lanak bazter uzteko eskubidea du, baldin eta hautaturiko gaiarekin zerikusirik ez badute, kalitatezko baldintza teknikoak betetzen ez badituzte edo beste edozein arrazoi dela-eta zalantzazkoa bada lehiaketaren baldintzak betetzen dituztela.
- 15) Film labur irabazleek sari hauek jasoko dituzte:
  - **Epaimahaiaren Saria: 1.500 €**
  - **Ikusleen Saria: 750 €**
- 16) Epaimahaiaren Saria hautatzeko, KCD GKEari eta UPV/EHUri lotutako hiru pertsona izendatuko dira (% 60 emakumeak izango dira).
- 17) Ikusleen Saria emateko, zenbatu egingo da film laburrek KCD GKEaren streaming plataforman **<https://www.filmsozialakstreaming.org/>, urriaren 7ko 11:00etatik (argitaratzen direnetik), urriaren 14ko 17:00etara arte** (botoak zenbatzen amaitzen denera arte) lortu duten boto gehiago.
- 18) Ez dira zenbatuko kontu faltsuen edota jarraitzaileak edo boto gehiago erosteko plataformen bidez emandako botoak, ezta programaturiko edozein automatismo motaren bidez lortutakoak ere. **Erakundeak baliogabetzat jo dezake saria, amarru horiek direla egiaztatzen badu.**

- 19) Parte hartzaileek erakundeari emango dizkiote filma laburren komunikazio publikorako, erreprodukzioarako eta banaketarako eskubideak.
- 20) Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du hemen adierazitako **oinarriak onartzen** direla.
- 21) **Epaimahaiaren erabakia** apelaezina izango da eta **urriaren 17an jakinaraziko da**.
- 22) Epaimahaiak eman gabe utz dezake saria.

Lehiaketari buruz besterik jakin nahi izanez gero, interesdunak erakundearekin harremanetan jar daitezke, 94 602 46 68 telefono zenbakira deituta edo helbide [invisiblexpress@kcd-ongd.org](mailto:invisiblexpress@kcd-ongd.org) elektronikora idatzita.